

Sansanet – ACUE (2264 m) – Estanes Lakua – Candanchu

Sansaneteko aparkalekuan emango diogu hasiera ibilaldiari, eskuinean sigi-saga batzuk eginez gorantz doan zidorretik joango gara HRP (Pirinioetako Goi-Ibilbidea) bidera iritsi arte. Baso eder batean bide hau jarraituko dugu Aspe Haraneko hegia zeharkatuz, Pirinioetako Parke Nazionalaren mugen barnean. Tarte batean zidorrak altuera galtzen doa eta Maspètres eta Espelunguereko mendien iparraldeko maldan gaudenean Borceko Herri Basoan barneratuko gara. HRP zidorra jarraituz Escalé errekatxora iritsiko gara eta hemen Forges d'Abeletik datorren bidearekin bat egingo dugu.

Orain Acue mendiaren hego-ekialdeko malda zeharkatu eta altuera berehala hartuko dugu. Pista bi aldiz gurutatu eta ondoren hau jarraituz Espelunguere izeneko basoan sartu. Aurrerago desnibel gutxiko zidorra bihurtzen da eta basotik irten baino lehen aldapa benetan gorantz jartzen da.

Behin basotik kanpo panorama ireki egiten da, ekialdean Partacuako mendiak eta aurrean gainditu behar dugun bailararantz, Coueq mendiak eta bailara zabala. Bistan dauden Saramayou bordetara doan bidearekin bat egingo dugu, baina haietara iritsi baino 200 bat metro lehenago ezkerrera joango gara, HRP eta Arlet adierazten duen bidea alde batera utzi eta bailaren bukaeran bistan dugun leporantz zuzenduko gara. Ezkerrean Gabedaille/Gabedallo eta Acue mendiak ditugu eta eskuinean Coueq mendiek ixten digute bidea; hasieran, bailararen barrenetik Caillabéré bordetara doan pista jarraituko dugu.

Dezente desnibel gainditu ondoren Acue lepora (2022 m) iritsiko gara. Gabedallo mendia zeharkatzen jarraituko dugu, baina orain ipar-mendebaleko maldatik Acue tontorrera daraman ertzerantz. Lepotik ez da ikusten ertz hau.

Behin ertzean Secus mendizerra eta Bisaurin mendiaren irudiak bistan ditugula eta orokorrean panoramika gero eta irekiagoa denean gorantz jarraituko dugu. Ertz zabala da, ez oso aldapatsua, eta tontorretik 20 metrotara estugune bat du, elur izoztuarekin arazoak eman ditzakeenak. Metro batzuk gehiago eta tontorra.

Acue (2264 m). Tontor estu eta luzea. Panoramika zabala eta ederra, hegoaldera aurrez aurre Bernera-Secus mendizerra eta Bisaurin mendia daude; mendebaldera Acher, Guarrinza harana, Zurizako mendiak eta Arlet eta Aillary piramideak; ekialdera, berriz, tontor ugari aipa daitezke, Aspeko mendigunetik Midi d'Ossauraino; Sesques da iparraldera nabarmentzen dena.

Ertzetik jaisten hasi bezain pronto gure eskuinean dagoen maldan behera hartu dezakegu eta ia zuzen Escalé leporaino jaitsi gaitezke. Hemen GR 11 bidea topatuko dugu. Lepoaren eskuinean Aguas Tuertas bailara ederra dago eta beherago Guarrinzako harana. Ezkerrean, harkaitz multzoaren bestaldean, Estanes lakua dago. GRa ezkerrerantz jarraitu eta harkaitzak gainditu ondoren Estanes lakura iritsiko gara. Hau ere bai inguru ederra.

Bidea jarraituz Estanes lepotik basorantz jaitsiko gara eta Aspeko mendigunearen iparraldeko malda zeharkatzen hasiko gara. Llena del Bozo eta Llena de la Garganta mendien arteko Napazal lepotik behera dagoen La Chorota izeneko parajetik pasatuko dugu, Aspe ibarraren buruan. Baso ederraren barnean bidea jarraituz Causiat lepoan izango gara eta laster Candanchuko eski estazioan.

Sansanet – ACUE (2264 m) – Estanés Lakua – Candanchú

Iniciamos el recorrido en el aparcamiento de Sansanet, a la derecha ascendemos por un sendero que realiza varios zig-zag hasta que llegamos al sendero de la HRP (Alta Ruta Pirenaica). Seguimos este camino recorriendo la ladera del Valle de Aspe por un magnífico bosque dentro de los límites del Parque Nacional de los Pirineos. En un tramo el sendero pierde altura y cuando nos hallamos en la ladera norte de los picos Maspètres y Espelunguere nos adentramos en el Bosque Comunal de Borce. Siguiendo el sendero HRP llegamos al barranco de la regata de Escalé, donde nos juntamos con el camino que asciende desde las Forges d'Abel.

Ahora cruzamos la ladera sureste del monte Acué y enseguida ganamos altura. En dos ocasiones cruzamos la pista para finalmente continuar por ella adentrándonos en el Bosque de Espelunguere. Más adelante la pista se convierte en un camino de poco desnivel y antes de salir del bosque afrontamos una rampa fuerte.

Una vez fuera del bosque la panorámica se abre, al este los montes de la sierra de Partacua, delante – hacia el valle que debemos superar- el amplio valle y los montes de Coueq. Llegamos al camino que se dirige a las bordas de Saramayou que se hallan a la vista, pero unos 200 metros antes de llegar a las mismas nos dirigimos a la izquierda, dejando a un lado el sendero HRP y la señal que indica Arlet y nos dirigimos hacia el collado que se ve al fondo del valle. A la izquierda tenemos los picos de Gabedaille/Gabedallo y Acué y a la derecha los montes Coueq nos cierran el camino; al comienzo vamos por el fondo del valle por la pista que se dirige a las bordas de Caillabéré.

Tras superar un buen desnivel llegamos al collado de Acué (2022 m). Seguimos cruzando el monte Gabedallo, pero en esta ocasión por la ladera noroeste, hacia la arista que conduce a la cima de Acué. Desde el collado no se ve esta arista.

Una vez en la arista, con las vistas sobre la Sierra de Secús y Bisaurin y en general con una panorámica cada vez más amplia, continuamos ascendiendo. Es una arista amplia y no muy inclinada que a unos 20 metros de la cima tiene un estrechamiento que con hielo puede dar algunos problemas. Unos metros más y la cima.

Acué (2264 m), una cima estrecha y alargada. Tiene amplias y bonitas vistas, al sur frente a ella están la sierra Bernera-Secús y el monte Bisaurin; al oeste Acher, el valle de Guarrinza, los montes de Zuriza y las pirámides de Arlet y Aillary; hacia el este desde el macizo de Aspe hasta el Midi d'Ossau podemos citar numerosas cimas y Sesques destaca al norte.

Tan pronto como empezamos a descender por la arista podemos tomar la ladera que tenemos a la derecha y casi sin desviarnos descender al collado de Escalé. Aquí encontraremos el sendero GR-11. A la derecha del collado se encuentra el precioso valle de Aguas Tuertas y más abajo el valle de Guarrinza. A la izquierda tras las rocas se halla el lago de Estanés. Seguimos la GR hacia la izquierda y tras superar el tramo rocoso llegamos al lago de Estanés. Este también es un lugar muy bonito.

Siguiendo el camino desde el collado de Estanés se desciende hacia el bosque y comenzamos a recorrer la ladera no del macizo de Aspe. Pasamos por el lugar conocido como La Chorrotá, en la cabecera del Valle de Aspe, bajo el collado de Napazal, entre Llena del Bozo y Llena de la Garganta. Siguiendo el camino por el hermoso bosque llegamos al collado de Causiat y pronto estamos en la estación de esquí de Candanchú.